



Umirez jardunaldiak burutuko dira hirugarrenez

Bertsozale Elkarteko genero taldeak antolatuta lau hitzaldi izango dira otsailaren 14an eta 21ean. Helburua bikoitza da: feminismoaren ezagutza zabaltzea, batetik, eta genero rolen bereizketaz kontzientzia piztea bestetik. Bertsolaritza genero ikuspegitik aztertzekeo parada izango da, beraz.

Bertsozale Elkarteko genero batzordeak etengabe lanean jarraitzen du. Aurten hirugarrenez generoa eta bertsolaritza uztartzen dituzten "Umirez" jardunaldiak antolatu ditu. Bi helburu izango dituzte: feminismoaren ezagutza zabaltzea eta genero rolen bereizketaz kontzientzia piztea. Feminismoaren eta maskulinitatearen inguruan sakontzeko baliagarriak izango dira hitzaldi hauek. Eta, aldi berean, genero ikuspegitik bertsolaritzan eta beste arte eszenikoetan gertatu diren esperientziak ezagutzera emateko balioko dute.

Otsailaren 14an izango da lehenengo hitzordua, arratsaldeko 18:00etan. Carmen Larrañaga Odriozolak "Emakumea eta bertsolaritza. Lehen ikerketak" izeneko hitzaldia eskainiko du. Bera izan zen bertsolaritza lehenengoz genero perspektibatik aztertu zuena "Del bertsolarismo silenciado" lanarekin. 16 urte igaro dira ordutik.

Bigarren hitzaldia Ibon Arrizabalaga de Mingok emandakoa izango da, 19:30ean: "Mutil nerabeak: aurrera ala atzera goaz?". Gaur egun "Harremonak" egitasmoan ari da lanean gazteekin. Ikastetxeetan eta herri mailan mutil nerabeen artean aurkitutako jarrerak azalduko ditu.

Astebete beranduago jarraituko dute jardunaldiek; otsailaren 21ean, ostegunez. Eguneko lehenengo hitzaldia 18:00etan hasiko da. Jokin Aspiazu Carballok maskulinitatearen inguruan orain arte sortu diren ikuspegiak aztertuko ditu. Izenburua, hauex: "maskulinitatea: eraldatu, irauli edo baztertu".

Jardunaldiak bukatzeko, Saioa Cabañasek "Emarock" egitasmoa azalduko du. Dokumental eta hitzaldiak uztartzen ditu ekimen honek, eta musika munduko emakumeak ikusgai egitea du helburu.

Horrez gain, jardunaldietan landutako gaietan sakontze aldera, hitzaldien ondoren afaritan geratzeko aukera ere izango da. Izena aurretik eman beharko da honako helbide honetan: umirez@bertsozale.com. Gainera, hitzaldiak grabatu eta interneten eskegiko dira www.bertsoa.com atarian.



Umirez 2012.//XZDZ



UXUE ALBERDI
2013-01-26, Donostia

Gaia: Tentazioa
Doinua: Gure herri ttiki hau da

Tentazioa da sua, txinparta baten dardara edo gorputz eder baten zeharkako begirada; agian zigarratxo bat sartzea ezpainetara edo eta boterea norberaren patrikara. Gaingitua uste nuen, salbu nengoela jada baina kalean ixkinan itzuli egin da, hara: nahiz eskertzen den tentaldi gabeko aroen patxada etortzen da ta orduan bizirik sentitzen gara.

Familia izan liteke toki goxo ta xamurra ta bikote egonkor bat hain egitura ziurra baina zeinen hurbil dauden egia eta gezurra; zein biguna haragia, ta ze gogorra hezurra. Hemen nork ez du izan nahi orekatua, zuhurra baina nahasten da sabela ta lehortzen da zintzurra; tentaldiak, bertigoak dardarazten badu lurra erortzeko gogoia da ez erortzeko beldurra.

Erroei lotutako txapelketa egingo dute Araban

2013a txapelketa urtea izango da Araban. Urtarrilaren 25ean hasi eta martxoaren 16ko finalera arte gozatzeko aukera ekarriko du txapelketak. 2012ko Kuadrilla Arteko Txapelketak bertsozaritza zabaltzen lagundu bazuen, mugimendua sendotzera dator aurtengoa.

30 bertsolari, 16 gai-jartzaile eta 7 epaile

2000. urtean erabaki zuen Arabako Bertsozale Elkartek bere bide propioa abiatzea. 2010ean beste pausu bat eman zuen txapelketa bi urtean behin antolatzeari ekinez. Tarteko urteetan Kuadrilla Arteko Txapelketak antolatu ditu. 2012koak indar handia eman zion Araban bertsozaritari. Horren isla dira aurtengo txapelketaren kopuruak: 30 bertsolari, 16 gai-jartzaile eta 7 epaile ariko dira txapelketan. Hala, bigarren arabarrak izango dira epaile guztiak Arabako Bertsolari Txapelketan.

Historiari lotua

1982an abiatu zen bertsozaritzaren mugimendua Araban. Urte hartan zenbait bertsozale Abornikanora joan ziren Abel Enbeitarenera, bertso-eskola bat martxan jartzeko. Urte hartan Gasteizko eta Aiaraldeko bertso-eskolak jarri ziren martxan, eta 30 urteko belaunaldien arteko transmisioa abian ipini zen. Lotura horri keinu egin nahi dio aurtengo txapelketak, "lotu" lemarekin.

Txapelketa nola jarraitu

Kanporaketak bazkari eta afari formatuan jokatu dira eta prezioa 20 eurokoa izango da. Afari edo bazkarirako izena emateko dei 675 70 79 71 telefono zenbakira edo bidali mezu bat araba.sustapena@bertsozale.com helbidera.

Finalaurrekoetako sarrerak 6 eurotan jarriko dira salgai (4 euro bazkideek) takilan bertan. Finalerako sarrerak, ohi bezala, www.bertsosarrerak.eu atarian egongo dira eskuragarri 10 eurotan (7 euro bazkideek eta 3 euro 16 urtetik beherakoek).

Informazio gehiago aurki dezakezue www.arabakobertsozale.org webgunean. Hitzetik Hortzerak eta Bertsoa.comek ere jarraipen zabala egingo diote aurtengo txapelketari.



Txapelketako logoa.//Arabako Bertsozale Elkartea

EGUTEGIA

KANPORAKETAK:

Urtarrilaren 25a, ostirala, Lantenon
Urtarrilaren 27a, igandea, Elosun
Otsailaren 1a, ostirala, Agurainen
Otsailaren 2a, larunbata, Laudion
Otsailaren 3a, igandea, Lantziegon

FINALAURREKOAK:

Otsailaren 16a, larunbata, Izarran
Otsailaren 23a, larunbata, Aramaion
Martxoaren 2a, larunbata, Dulantzin

FINALA:

Martxoaren 16a, larunbata, Gasteizen

Andere Arriolabengoa, Arabako Bertsozale Elkarteko Sustapen arduraduna:

"Gure helburua da kantitatezko salto hori kualitatibo ere bihurtzea"

Zein nobedade dakartza aurtengo txapelketak? Guretzat salto bat izan zen orain dela bi urteko txapelketa eta gure helburua da aurtengo txapelketan kantitatezko salto hori kualitatibo ere bihurtzea. Entzuleen aldetik ere azken urteetan guregana hurbildu direnak mantentzea eta senti daitezela gugandik gertu.

2010etik taldekako eta bakarkako txapelketak uztartzen dira Araban. Zer ematen dio bata besteari? Oso ezberdinak dira bai izpirituz, bai

antolakuntzan eta baita exekuzioan ere. Taldekakoak balio du jende berria erakartzeko, bai bertsolari bezala, epaile, gai-jartzaile eta entzuleen aldetik ere bai, ez baita bertso-eskolaren inplikazioa soilik eskatzen, eskatzen du herria bera ere inplikatzeko modu batean edo bestean. Banakako txapelketa erronka indibiduala da gehiago eta bakoitzak bere buruarekin egiten du borroka.

Historiari lotutako txapelketa izango da. Nolako da belaunaldien arteko lotura Araban? Gu izan ginen lehenengo

belaunaldi "gaztea", gure aurretik zeuden guztiak historikoak ziren nolabait: Ruben (Sanchez), Juaristi, Serapio, Rikardo... Orain lortu dena da jende gazte asko erakartzea, hurbiltzea. Gainera jende inplikatu da, bai Gasteiz mailan eta bai Araba mailan bertso jardunean aktiboki parte hartzen duena eta guretzat hori oso garrantzitsua da, hori bai, nondik gatozen ahaztu gabe. Horregatik izan da Abel Enbeitaren baserrian txapelketaren aurkezpena. Guk oso presente baitauekagu erreferentzia hori.

31 bertsolari Nafarroako Bertsolari Txapelketan

Inoizko parte-hartzaile kopururik handiena izango du Nafarroako Bertsolari Txapelketak bere 41. edizioan. 31 bertsolarik hartuko dute parte, horietatik sei lehen aldiz aterako dira. Parte-hartzaile kopuru handiaren ondorioz, saio bat gehiago izanen du Txapelketak, osotara bederatziz. Modu horretan bertsolari guztiak lehen fasetik abiatuko dira, iazko txapelduna izan ezik.

Bi urtetik behingo ekimena

Aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketak beste hainbat nobedade ditu. Batetik, ziklo berri baten hasiera da Nafarroako bertsolaritzarako, 2011ra arte urteroko maiztasuna baitzuen txapelketak. Horren ostean, Nafarroako Bertsolari Txapelketa bi urtetik behin egitea erabaki zuen Nafarroako Bertsozale Elkarteak. 2012an, berriz, Bardoak taldekako bertso ekimena

antolatu zuen Nafarroako Bertsozale Elkarteak.

Bestetik, kontutan hartu behar da aurten ez dela bakarrik Nafarroako txapela jokoan dagoena. Izan ere, txapelketako lehen lau sailkatuek udazkenean izango den Bertsolari Txapelketa Nagusirako txartela eskuratuko dute.

Txapelketaren inguruko informazioa

Saio guztietarako sarrerak www.bertsozaleak.eu web gunean daude salgai. Txapelketaren gaineko informazio osoa eta gaurkotua www.nafarroakotxapelketa.com web gunean aurkituko duzue. Sare sozialen bitartez ere, txapelketaren informazioa jasotzeko aukera izango da.



EGUTEGIA

AZKEN LAURDENAK:

Otsailaren 2a, larunbata, Lizarran
Otsailaren 3a, igandea, Aldatzen
Otsailaren 9a, larunbata, Larrainzarren
Otsailaren 10a, igandea, Iturenen
Otsailaren 16a, larunbata, Zubirin

FINALAURREKOAK:

Martxoaren 2a, larunbata, Atarrabian
Martxoaren 3a, igandea, Etxarri Aranatzen
Martxoaren 9a, larunbata, Elizondon

FINALA:

Martxoaren 23a, larunbata, Iruñean

Lorea Arburua. Nafarroako Bertsozale Elkarteko eragilea

“Denon artean bertsolaritzaren sare soziala trinkotzen ari gara”

Azken Nafarroako Bertsolari Txapelketaren ostean urteko maiztasunarekin amaitzea erabaki zuen Nafarroako Bertsozale Elkarteak. Zer dela-eta hartu zenuten erabaki hori?

Argi dago Nafarroako Bertsolari Txapelketak asko eman diola herrialdeko bertsolaritzari eta urteroko erakusleihorik polita zela. Baina horren gainetik txapelketak ziklo bat bete zuela baloratu genuen eta hobe zela bi urtetik behin egitea eta indarrak beste proiektu batzuetara bideratzea; esate baterako, iaz egin genuen taldekako Bardoak ekimenera.

Aurtengo ezaugarririk nabarmenetakoa Txapelketan parte hartuko duen bertsolari kopuru handia da. Bertsolaritza Nafarroan sasoi onean dagoela erakusten al du horrek?

Azken urte hauetan egin den lana erakusten duen erakusgarrietako bat da, baina ez bakarra. Bardoak ekimenari esker bertso eskoletan ari den jende askok jendaurrean lehen aldiz abesteko aukera izan zuen eta horietako batzuk animatu dira orain bakarkakoan parte hartzera. Hainbat bertsolarik atsedean hartzea erabaki duten arren, pozgarria da hasiberri asko parte hartzen animatu direla ikustea. Hala ere, ez zaio bakarrik bertsolari kopuruari erreparatu behar, esaterako

gai-jartzaileak eta epaileak ere lan polita egiten ari dira. Aurtengo leloak dioten moduan denon artean bertsolaritzaren sare soziala trinkotzen ari gara.

Gainerakoan, zer azpimarratuko zenuke aurtengo txapelketaz?

Batetik, saio bat gehiago izango dugula eta hori ere pozgarria da, Txapelketarekin bertsolaritza Nafarroako bazter guztietara eramateko ahalegina egiten baitugu. Bestetik, berriro ere finala Iruñean egingo dugu, orain dela bi urtekoa erronka moduko bat izan zen eta oso ongi atera zen. Aurten ere Nafarroako Bertsolari Txapelketa bertsolaritzaren eta euskal kulturaren festa izan dadila nahi dugu.

BATZAR NAGUSIEN EGUTEGIA

Arabako Bertsozale Elkarteak: Urtarrilaren 19an, Izarran, 12:00etan, Behekoiturri Elkarteak.

Nafarroako Bertsozale Elkarteak: Otsailaren 16an, Zubirin, Gautxori jatetxean, 11:00etan.

Bertsolariaren Lagunak Elkarteak: Otsailaren 23an, Senperen, 10:00etan, Larraldea etxean.

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak: Martxoaren 2an, Zaldibin, 11:00etan, Karrerane Kultur Etxean.

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak: Martxoaren 2an, Zornotzan, 17:30ean, Zelaieta zentroan.

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak: Martxoaren 9an, Elizondon, 11:00etan.



Puntua jarrita

MAIALEN AKIZU

Ai gure eskolartekoa, makina bat buruhauste eman izan dizkiguna, baina pozak ere bai. Aitor, zu ere bertan ezagutu zintudan.

Eskolartekoa bertso eskolako koadrilarekin batera ezagutu nuen. Autobusa bete, pankarta handi bat eskuartean hartu eta kantuan joaten ginen lagunak animatzera. Nire txanda iritsi zenean ordea, saiorako bidea agurra errepasatzen igarotzen nuen, sabeleko tximeletak ezin geldi nitzakeela. Mantzanila hartu, eskolara joan gabe geratu... bertso txiki baten ordaina, garesti ateratzen zitzaidan. Hori bai, lau errima zein gaiarekin ahal bezala kantatu ostean, patxadan esertzen nintzen aulkian Lizasoren pare, botila urari trago pare bat egiten nion, suabe, Uxue Alberdiren gisan, eta kantatutakoaz hausnartzen nuen Ametsen moduan. Bertsolari txiki bat sentitzen nintzen. Txapela irabazi genuen urteren batean, eta a ze poza gurea! Buru gaineko altxor hura lotarako ere ez genuen erantzi. Orain ergel hutsa nintzela pentsa dezaket halako jarrerarekin, baina orduan ezin kontrakorik esan.

Behin 14 urte egindakoan, hasierako taldekako agur xelebreak utzi eta plazako bertsolarien agurrekin hasten genuen saioa. Txapelketa batean geundela sinistu, eta saio-kideak, betiko lagunak, arerio bihurtzen ziren kantatu beharreko bost bertsoak bukatu arte. Bai, esaten ziguten, eta esaten genuen, eskolartekoak ez duela hainbesteko garrantzirik, jolas bezala hartu behar genuela eta saio bat bakarrik zela. Eta funtsean hori da arazoa: eskolartekoa dela gure adinekoren saio bakarra. Txapelketa formatua ematen zaion aldetik, lehia izaten da jarritako arauetako bat. Eredu ere horixe dugu, goi mailako bertsolarietara ere berdina eskatzen baitzaie; bertsolari onenak, txapelketan ondo aritzen direnak. Beraz, umetatik bertsolaritza tentsio, txapel eta lehiarekin lotzen dugu. Bai, beste mila gauza ere ematen dizkigu, baina asko izan dira jendaurreko esperientziak beldurtu, eta bertso mundua utzi dutenak, bertsoa oholtza gainean bakarrik egingo balitz bezala. Zuk, Ane Labaka, eskolartekoa eta txapelketa nagusia gertu dituzun aldetik, nola bizi izan duzu lehia?


Koplak

.....
"Ez gara Palestinaz ari" ikuskizuna estreinatu du Lanku

Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolarietara eta Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikarietara hartzen dute parte emanaldian. Musika, antzerkia eta bertsoa uztartuz, publikoaren aurrean sentimenduak biluzteko konpromisoa hartu dute taldekideek. Ikuskizuna zure herrira eraman nahi izanez gero idatzi helbide honetara: marketina@lanku.com.

.....

Poto-Finixa



Zulaturik gabeko Bertso Eguna

Alberto Elozegi Erdozia

.....

Bertsozalea euskarri digitalean jaso nahi?

Berripapera euskarri digitalean jaso nahi baduzu bidali mezu bat komunikazioa@bertsozale.com helbidera zure izen-abizenak eta berripapera jaso nahi duzun helbide elektronikoa zahaztuz. Bi erataria jaso nahi izanez gero, posta arruntez eta elektronikoz, adierazi mesedez eskaria giterakoan.



JASOTA BEZALA
Bertso antologiaren bilduma

Lanku
ESKURATZEKO:

www.lanku.com (etxean jasoko duzu)